

Arrosak

Basetxean bizi zen lugin etxagun batek, landatu zuen bere baratzako lilitagian arrosa-ondoeko bat.

Ikusi zuen hurrengo egunean bere alaba Margarik eta esan zion aitari:

— Zer jarri duzu hor? Hain lilitegi polit eta ederrean sartu habetxo (1) zakar hori! Oso gaizki ematen du arantza horrek lorontzi egoki horretan.

— Itxoin, ume, itxoin —erantzun aitak.— Arantza lehorra iruditzen zaizun landare horrek emango ditu garaiz baratze guztia bitxituko duten lore lirain eta guri-guriak.

Margarik burua higituaz erakusten zuen bere sinesgaiztasuna.

Baina ez zuan izan luzaro itxoin beharrik sinesteko. Laster agertu zitzaizkion habetxo arant zadunari motetxoak, eta poliki-poliki ostatuaz jantzi zen margo hori urdin ederrez. Ondoren, sortu zitzaizkion pinpirin (2) txiki eta politikak, eta lilipa, akara eta beste lore-belarren hostoak zimeldu eta lehortzen ari zirenean zabaldu ziren arrosa-pinpirinak eta arantza baino besterik ez zeukan landaretxo ura bete zen lore lirain eta ederrez, baratze guztia apaindu eta bitxituaz.

Margari harriturik aurkitzen zen arrosaren zurigorritzko margo ditzikorra ikusiaz eta bere usain goxoa sumatuaz. Uneoro joaten zen lore berriaren urrina gozatzera, eta honela zion:

— Hau bai dela lore polita! Ez dut inoiz ikusi politagorik, ezta baratze apaingai ederragorik ere. Nork esango zuen!

— Sinisten duzu orain? —erantzun zion aitak. —Ikusi duzu nola arantzatik etorri litekeen arrosa ederra. Bere epea igaro arte itxoin beharra izan duzu, baina orain pozik aurkitzen zara.

Arrosarena ez dela oso famatua eta polita.

Ander Etxeberria